

Ordizian, **2011ko maiatzaren 16an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belén Maiza Urrestarazu andrea	EA Taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J. Lopez Fernandez	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK

Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
-------------------------------	----------------------

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:


Jose Luis Aranburu Otegi Jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK


- Asenjo jauna "Alkatetzak onartutako kreditu aldaketen kontu ematea" puntuan joan da.
- Txurruka eta Manrique jaunak 9. puntuan joan dira.
- Leunda jauna 12.puntuan joan da.



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.- 2011ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.	4.orr.
2.- 2011ko apirilaren 26an ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.	5.orr.
3.- 2011ko maiatzaren 9an egindako ez-ohiko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea.	5.orr.
4.-Ezker -Batua – Aralar- en proposamena, 1936. urteko kolpe militarren ondorioz kargutik kendu zituzten zinegotziak aitortzeko proposamena.Galde-eskeak.	6.orr.
5.-2010eko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.	9.orr.
6.- Alkatetzak onartutako kreditu aldaketen kontu ematea	11.orr
7.-Udaleko lanpostuen balorazioa	12.orr.
8.-Herri Antzokia Erakunde Autonomoaren lanpostuen balorazioa.	16.orr.
9.-Kontratazio Zentralerako Foru Aldundiaren Esparru Akordiora atxikitzea.	18.orr.
10.-Herritarren Partaidetzarako Esparru Akordioa.	21.orr.
11.-Udalaren jabetza publikoko lursail zatia okupatzeko baimena ematea Iberdrola S.A.U.ri.	23.orr.
12.-San Joan HIE 22ko 30.5 lursailaren hasierako xehetasun azterketa behin betiko onartzea.	25.orr.
13.-"Oiangualde" HIE30 b.20 lursaileko P2 azpilursailaren azalera eskubidearen esleipenerako Hitzarmena onartzea	27.orr.
14.-2010eko ekitaldiko GOIEKI S.A.ren kontuen auditoria txostena onartzea.	28.orr.
15.- EIOZen hobaria LORTEKI	31.orr.



PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- a) Udalak eta Goierriko Ekimena SAK sinatu beharreko Hitzarmena onartzea, azalera eskubidea uzteko Oiangualde HIE 30eko b.20.1. lursailaren P2 azpilursaila erosteko aukerarekin.
- b) 2010 ekitaldiko GOIEKI S.A.ren kontuen auditoria txostena onartzea.
- c) Kreditu aldaketak onartzea.

.....**32.orri.**

GORABEHERAK


GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 8,10 h

BUKAERA ORDUA: 11.15h





Batzordea hasi aurretik, Asenjo jaunak Idazkari andreaki galdetu dio ea osoko bilkuraren deialdia legeak ezartzen duen eran egin den, epeari dagokionez, eta osoko Bilkurako gaiak aztertzen dituen Batzordea egin den.

Idazkari andreak erantzun dio esanez Osoko Bilkurarako Gaien Batzordea 2011ko apirilaren 11n izan zela, ohiko data baino lehenago tartean Aste Santua eta Pazko Astea zeudelako. Aipatutako Batzordearen eguneko gai-ordenan gaurko osoko bilkuran sartuta dauden gai guztiak aztertu ziren, hiru gai izan ezik, horretarako osoko bilkurak gehiengo osoz bozkatu beharko du eguneko gai ordenan sartu nahi duen ala ez.

Deialdiaren epeari dagokionez, Idazkariak jakinarazi du bi lanegunetako epea bete dela, zinegotzientzako deialdia ostegun eguerdian bidali zelako.

1.-2011ko otsailaren 25eko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Gonzalez jn.

Gonzalez Astiz jaunak adierazi du gaztelerazko aktaren 32. orrialdeko 6. puntuan akats bat dagoela, "2011ko Lanpostu Zerrenda" puntuan, berak esandakoa gaizki dagoela eta dice Le responde que a comienzos de la legislatura se pronunciaron claramente en apoyar la **legitimidad al** Alcalde como institución aunque no aprobaran su política" dioen tokian ondorengoa esan behar duela: "Le responde que a comienzos de la legislatura se pronunciaron claramente en apoyar la **legitimidad del** Alcalde como institución aunque no aprobaran su política ".

Idazkariak egin du zuzenketa.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 1, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (Auzmendi andrea eta Manrique jauna abstenitu egin dira bilerara ez zirelako joan.



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

2.-2011ko apirilaren 26an egindako ez-ohiko Osoko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko apirilaren 26an ohiko deialdian egindako bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 5 (EAJ/PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 1, EB/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (Manrique, Dubreuil, Txurruka, Auzmendi, Asenjo eta Gonzalez jaun-andreak abstenitu egin dira, ez zirelako batzordera joan).

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




3.-2011ko maiatzaren 9an egindako ez-ohiko eta presazko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko maiatzaren 9ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila



Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Azaldu du hauteskunde mahaiak osatzeko lehenengo zozketa egin eta gero, ezin izan zietela mahaietako 8 kideri jakinarazi erabakia, eta beraz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen aginduak kontuan hartuz presazko izaerarekin beste osoko bilkura bat egin behar izan zela mahaiak osatzeko beste zozketa bat eginez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak 3 (EAJ/PNV 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 8 (Manrique, López, Txurruka, Auzmendi, Maiza, Asenjo, Gonzalez eta Leunda jaun-
andreak ez ziren batzorde horretan egon)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren laugarren puntuaren berri eman du:


4.-Ezker-Batua/Aralar- en proposamena, 1936. urteko kolpe militarren ondorioz kargutik kendu zituzten zinegotziak aitortzeko proposamena.

Proposamena

Joan den apirilaren 14an 80 urte bete ziren II. Errepublika aldarrikatu zela. 36ko estatu kolpeak II. Errepublikaren gobernu-molde legitimoa kendu zuen eta hainbat gizarte-taldek (maisu-maestrak, intelektualak, sindikalistak, etab.) jasan behar izan zuten errepresio-prozesuari hasiera eman zion. Horien artean zeuden udaletako hautetsiak. Hautetsi hauetako batzuk kargutik kendu zituzten, jazarri eta espetxeratu; beste batzuk exekutatu egin zituzten. Haien delitu bakarra zinegotzi hautatu izana zen, herri subiranotasunaren ordezkari legitimoak izatea.

Ordezkarri hauek ahaztuak izan ditugu Gipuzkoako Batzar Nagusiek Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera prestatu duten liburuan Gipuzkoako Udal ezberdinetatik legearen kontra kendu zituzten zinegotzien zerrendak, akte buruzko informazioa eta erabakiak argitaratu diren arte.

Horregatik guztiagatik, Ezker Batua Berdeak- Aralar udal taldeak ondorengo proposamena aurkezten du Udalbatzarrak edota, hala badagokio, Bozera maileen Batzordeak aztertu dezan.



PROPOSAMENA

1. Ordiziako Udalak, apirilak 14ean, jendaurreko ekitaldian, estatu kolpeak beren kargutik kendutako zinegotziek egindako ekarpena eta zeukaten legitimitatea aitortzea.
2. Udaletxearen aurreko fatxadan edota Saio Aretoan bertan oroigarritzko plaka bat jartzea, estatu kolpeak kargugabetu zituen zinegotzien izenekin.
3. Kargugabetutako zinegotzien senitartekoak eta herritarrak oro har ekitaldira gonbidatzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Azaldu du Gipuzkoako Batzar Nagusian lanean ari direla 1936ko kolpe militarren ondorioz kargutik kendutako zinegotzien lana eta dedikazioa aitortzeko.

Orain Ezker Batua/Aralarrek proposatzen du mozioa osoko bilkuran onartzeko.

Gonzalez jn.

Gonzalez jaunaren esanetan historiak zuzena izan behar du eta aitortu beharrekoa aitortu behar du. Bidezkoa da pertsona hauei egindako lana aitortzea.

Gonzalez jaunak adierazi du mozioaren edukia pixka bat aldatzea gustatuko litzaiokeela.


Zioen azalpenean Ezker Batua/Aralarrek aurkeztutako proposamena dela idatzi, era honetara: *Aurreko guztiagatik, Ezker Batua/ Aralarrek Osoko Bilkuran edo Bozeramaile Batzordean ondorengo proposamena aurkezten du aztertua izan dadin.*

Horrekin batera, azalpenen zatiko 1. puntua aldatzeko proposamena egin du, apirilaren 14ko erreferentzia kenduta, eta honela idatzita uztea: *Ordiziako Udalak ekitaldi publiko batean aitortu dezala estatu kolpearen ondorioz kargutik kendutako zinegotzien legezatasuna.*

Asenjo jn.

Mozioa egokia iruditzen zaiola esan du nahiz eta esan beraiek beste era batean proposatuko zutela. EAk osoko bilkuran mozioaren bat aurkeztu izan duenean beste alderdi politiko batzuen berrespena lortu dute, proposatutako gaiak monopolizatu izana leporatu zaie hala ere. Orain Ezker Batua/Aralarrek mozioa beste alderdi politiko batzuekin adostu zezakeen.

Bozkatuko den mozioa beraz honela idatzita geratuko da:



Proposamena

Joan den apirilaren 14an 80 urte bete ziren II. Errepublika aldarrikatu zela. 36ko estatu kolpeak II. Errepublikaren gobernu-molde legitimoa kendu zuen eta hainbat gizarte-taldek (maisua-maestrak, intelektualak, sindikalistak, etab.) jasan behar izan zuten errepresio-prozesuari hasiera eman zion. Horien artean zeuden udaletako hautetsiak. Hautetsi hauetako batzuk kargutik kendu zituzten, jazarri eta espetxeratu; beste batzuk exekutatu egin zituzten. Haien delitu bakarra zinegotzi hautatu izana zen, herri subiranotasunaren ordezkari legitimoak izatea.

Ordezkari hauek ahaztuak izan ditugu Gipuzkoako Batzar Nagusiek Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera prestatu duten liburuan Gipuzkoako Udal ezberdinetatik legearen kontra kendu zituzten zinegotzien zerrendak, aktei buruzko informazioa eta erabakiak argitaratu diren arte.

Horregatik guztiagatik, Ezker Batua Berdeak- Aralar udal taldeak ondorengo proposamena aurkezten du Udalbatzarrak edota, hala badagokio, Bozeramaileen Batzordeak aztertu dezan.

PROPOSAMENA

- 1. Ordiziako Udalak, jendaurreko ekitaldian, estatu kolpeak beren kargutik kendutako zinegotziek egindako ekarpena eta zeukaten legitimitatea aitortzea.**
- 2. Udaletxearen aurreko fatxadan edota Saio Aretoan bertan orogarrizko plaka bat jartzea, estatu kolpeak kargugabetu zituen zinegotzien izenekin.**
- 3. Kargugabetutako zinegotzien senitartekoak eta herritarrak oro har ekitaldira gonbidatzea.**

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, IU-EB/ARALAR 2, PP 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.



5.-2010eko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Alkateak Berezko Aurrekontuetako likidazioak, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioak eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:

	Aurrekontuen emaitza	Diruzaintzako aurrezki garbia
Berezko Aurrekontua	1.119.267,45	1.936.945,99
"San Jose" Erakunde Aut.	-98.720,54	46.751,73
"Herri Antzokia" Erak.Aut.	-7.952,45	26.981,12

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Kontu-hartzaile jaunak laburki azaldu ditu Udalaren soberakin gordinaren nondik norakoak eta 2.450.000 euro direla jakinarazi du.

Soberakin garbia 1.900.000 eurokoa dela esan du baina azaldu du, kopuru hau ez dela berariaz soberakin gisa kontuan hartu behar.

Benetako soberakina 100.000 eurokoa dela esan du, eta osoko bilkura honetan onartzea proposatzen den kreditu aldaketan espedientearen ondorioz 80.000 eurotara jaisten dela.

Kreditu gehigarriei dagokienez, 2010ean Aurrekontuaren %4,84 izan da, 2008 eta 2009koekin alderatuta, lau aldiz hazi da lehenengo urtearekiko eta bikoiztu egin da bigarren urtearekiko.


Aurrekontuaren exekuzio mailari dagokionez, 1. kapitulua %106,42 izan da, 2. kapitulua %27,53 eta 3. kapitulua %143,97.

Zorra jaitsi egin da.

Foru Funtsaren itzulketak soberakinetik bideratu dira.

- 2008: 701.245,06 euro
- 2009: 1.293.534,83 euro
- 2010: 41.078,80 euro

Horrekin batera San Jose Egoitzako eta Herri Antzokiko Erakunde Autonomoen aurrekontuen likidazioaren berri eman du. Lehenengoan Udalaren ekarpena handia da, ohe guztiak ez direlako



bete %100ean eta beste Udalek ez dituztelako kuotak ordaintzen. Bigarreanean, iaz egoera hobetu bazen ere zerbitzuan hainbat berrikuntza egin zirelako, asistentzia jaitsi egin da eta egoera antzekoa da.

Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak Kontu-hartzaile jaunari galdetu dio ea badakien zein arlo desbideratzen diren gehien.

Kontu-hartzaile jaunak

Ezetz erantzun dio baina azterketa bat egin daitekeela erantzun dio.

Auzmendi and.

Hurrengo legealdira begira, sartzen diren zinegotzi guztiei aurrekontuen azalpenak emateko proposamena egin du, berak legealdiaren bukaeran izan baitu horren berri.

Leunda jn.

Leunda jaunari larria iruditzen zaio 100.000 euroko soberakina soilik geratzea.

Bere ustez zorroztasunik gabe jokatu da eta asko gastatu da. Dirua asko aholkularitzetan, iragarkietan, azoketan, ekitaldietan, azoketan etab.etan xahutu da.

Harritu egin zen Dubreuil jaunak prentsaurreko batean esan zuenean gastu arrunta %40an murriztu zela. Beharbada akatsa izan zen.

Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez zorrari buruz esango zuela eta ez gastu arruntari buruz.

Leunda jn.


Leunda jaunak uste du gehiegi gastatu dela. Alderdi politiko bakoitzak bere programetan xahutu du dirua, aholkularitza enpresek eta paper-lantegiek izugarrizko pagotxa izan dute.

Alkate jn.

Alkate jaunak gogorarazi dio ez direla zorraz baliatu eta hori kontuan izan behar dela eta foru funtseko zorra ere pixkanaka jaisten ari dela kanpotik finantzatu gabe.

Txurruka jna.

Txurruka jaunak adierazi du beharbada gehiago lotu behar zitzaiola aurrekontuari.



Udaleko Osoko Bilkurak izan du likidazioaren berri.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

6.- Alkatetzak onartutako kredituen aldaketen kontu ematea

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua arabera, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.

Aurten oraingoz onartutako aldaketak honakoak dira:

Kreditu transferentziak	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
1	313	33.651,56
Kreditu gehigarriak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	313	1.348,44
3	331	1.238,82
4	358	390.267,70
Kreditu eransketak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	261	1.349.191,25
Kredituak gaitzea		
Zenbakia	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
1	366	7.800,00


Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.



7.- Udaleko lanpostuen balorazioa

Proposamena

2010. urtearen hasieran, udalak eginkizunen deskribatzeko eta udaleko lanpostuak baloratzeko lanei heldu zien ATTEST enpresarekin.

Horretarako, batzorde paritarioa eratu zen, honela osaturik: alde sozialetik hiru ordezkari eta hiru ordezkari alde instituzionaletik. Helburua zen lanpostu bakoitzaren eginkizunen deskribapen-proposamena eta lanpostuen lansarien balorazio-proposamena onartzea.

2010eko azaroan, balioeste-batzordeak proposamena egin zuen, eta langileei eman zitzaien horren berri. Ondoren, epe bat zabaldu zen alegazioak aurkezteko.

Batzordeak alegazioak aztertuta, eta interesdunei erantzunda, 'Lanpostuen eginkizunen deskribapena eta lansarien balorazioa' izeneko dokumentua proposatu da; hori onartzea Udaleko udalbatzari dagokio.

Halaber, Batzordeak alde sozialaren eta udaleko bi ordezkariaren artean adostutako dokumentu bat (balorazioa aplikatzeari eta lansarien beste baldintza batzuei buruzkoa) proposatu du osoko bilkuran onartzeko.

2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatu da.


AKORDIORAKO PROIEKTUA

- 1.- Landutako proposamenaren arabera, udaleko lanpostuen eginkizunen deskribapena onartzea.
- 2.- Lanpostu bakoitzerako ordainsaria jasotzen duten kalifikazio-aktak onartzea.
- 3.- Balioeste-batzordeak proposatutako akordioa onartzea, bai balorazioa bai beste ordainsari-baldintzak aplikatzeko. Horrek esan nahi du:
 - a) 2012 eta 2013. urteetan, lanpostuen balorazioa 2011ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginezko izaerarekin aplikatuko da, aurrekontu erabilgarriaren arabera.
 - b) Halaber, 2012 eta 2013. urteetan, administrazioko langileek 2010ean ordainsarian izan duten galera berreskuratzea.
 - c) 2012 eta 2013. urteetan, 2011. urteari dagokion KPIren % 2,8ko igoera aplikatzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Langile Batzordea

Langile Batzordeko kideek akordioaren azalpen-zatia aldatzeko proposamena egin dute, 3. puntuko a), b) eta c) puntuak kenduta eta lortutako hitzarmena osoko bilkurako akordioari erantsita.

Beraz, azalpen testuko 3. puntua honela idatzita geratuko litzateke: 3.- Balorazio -batzordeak proposatutako akordioa onartzea, bai balorazioa bai akordio honi eransten zaizkion beste ordainsari-baldintzak aplikatzeko.

Proposamena

2010. urtearen hasieran, udalak eginkizunen deskribatzeko eta udaleko lanpostuak baloratzeko lanei heldu zien ATTEST enpresarekin.

Horretarako, batzorde paritarioa eratu zen, honela osaturik: alde sozialetik hiru ordezkari eta hiru ordezkari alde instituzionaletik. Helburua zen lanpostu bakoitzaren eginkizunen deskribapen-proposamena eta lanpostuen lansarien balorazio-proposamena onartzea.

2010eko azaroan, balioeste-batzordeak proposamena egin zuen, eta langileei eman zitzairen horren berri. Ondoren, epe bat zabaldu zen alegazioak aurkezteko.

Batzordeak alegazioak aztertuta, eta interesdunei erantzunda, 'Lanpostuen eginkizunen deskribapena eta lansarien balorazioa' izeneko dokumentua proposatu da; hori onartzea Udaleko udalbatzari dagokio.

Halaber, Batzordeak alde sozialaren eta udaleko bi ordezkariaren artean adostutako dokumentu bat (balorazioa aplikatzeari eta lansarien beste baldintza batzuei buruzkoa) proposatu du osoko bilkuran onartzeko.

2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatu da.

AKORDIORAKO PROIEKTUA


1.- Landutako proposamenaren arabera, udaleko lanpostuen eginkizunen deskribapena onartzea.

2.- Lanpostu bakoitzerako ordainsaria jasotzen duten kalifikazio-aktak onartzea.

3.- Balorazio -batzordeak proposatutako akordioa onartzea, bai balorazioa bai akordio honi eransten zaizkion beste ordainsari-baldintzak aplikatzeko.

Alkate jn.

Adierazi du akordioa aurrera eramateak ekarriko lukeen diru-injekzioaren balorazio bat egin duela.



Aurten aurrekontua doitzea zaila izan dela uste du eta datorren urtekoa, aurreikuspenen arabera, ez da hobea izango, guztiz kontrakoa izango da. Gobernu berriak ezingo luke inbertsiorik egin eta ez lieke bermatuko herritarrei gutxieneko zerbitzurik.

2010. urtean zorra ordaindu dela adierazi du eta Ur Partzuergotik diru-sarrera handiak jaso dituztela baina hori ez-ohikoa dela eta foru funtseko zorra soberakinen bitartez ordaindu dela.

Egoera ekonomikoa ez da oso ona eta balorazio lanak egiten hastean ez zen aurreikusi egoera zail hau.

Lanpostuen balorazioa eta onartu nahi diren bestelako ordainsarietako baldintzak bereizi behar direla uste du, eta Udalhitzeko hitzarmeneko foroan adostuta dagoen bezala negoziatu beharko litzatekeela uste du.

Egiazki uste du zama handia dela, eta gaur egungo zerbitzuak alde batera utzi gabe ezin zaiola aurre egin zama horri.

Proposamena onartzea arduragabekeria dela uste du.

Akordioa onartzeak bestelako ekimenak eta enplegu politikak martxan jartzea oztopatuko du.

Herritarrek ez dute ulertuko egoera ekonomiko zailean ehunka familia egonda funtzionarioei soldata igotzea.

Maiza and.

Erabakia hartu zenetik bi urte iraun duen prozesu bat izan dela azaldu du eta hasieratik gauza jakina zela diru-kopuru handia ipini beharko zela, eta Aholkularitza enpresak berak ere galdetu zuela baloraziorako zenbat diru erabiliko zen. Egoera ekonomikoa okerrera doala egia da, baina aurrera egitea erabaki zen eta orain Balorazio batzordean erabaki eta proposatutakoarekin aurrera egin behar da.

Egoera zaila da, horrekin bat egiten du, baina beharbada gauzak lehenetsi behar dira eta dirua zertan gastatzen den pentsatu beharko da. Beraiek akordioaren alde egingo dute.


Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak esan du ez dagoela ados Alkate jaunak esandakoarekin, arduragabekeriaz jokatzeko ari direla esaten duenean.

Balorazio berri bat egiteko asmoaz hitz egin zutenean berak pentsatzen zuen zenbait lanposturen balorazioa egingo zela soilik, eta bera horren aldekoa zen, baina Alkateak berak proposatu zuen antolakuntzarako proposamen bat egitea eta ondorioz lanpostu guztien balorazioa egitea.

Gonzalez jn.

Gobernu taldea berriro zatituta dagoela ikusten du.



Beste behin ere bere taldea prozesutik baztertu dute eta gutxietsi egin dituzte. Ez dute informazio guztia, baina gutxienez alde sozialak prozesuaren berri eman die, prozesua nola bideratu den azaldu diete eta langileek beraien laguntza eskatu izana erabakia hartzeko garrantzitsua da.

Manrique jna.

Proposatutako akordioarekin ez dagoela ados adierazi du eta Ezker Batua/Aralarren aldetik arduragabekeria dela uste du, datu askorik gabe akordioaren alde bozkatzeko dutelako.

Gonzalez jn.

Alde sozialak emandako datuak dituztela erantzun dio eta erabakia hartzeko horrekin nahikoa dutela.

Irastorza jaunak

Irastorza jaunak, Langile Batzordeko ordezkariak, Balorazio Batzordeko akta baten berri eman du, Batzordeak onartu zuen eta bertan ipintzen du akordio honi eransteko.

Asenjo jn.

Akordio hau onartzea arduragabekeria dela esan duenean alkateak minduta sentitu dela adierazi du, baina lan hau egiteak balio duenarekin enpresa bat kontratatzea eta Batzordeak proposatutako balorazioa ez onartzea arduragabekeria handiagoa iruditzen zaio.

Adibide bat ipini nahi izan du, Aparejadore/Zerbitzu Arduradun lanpostuarena. Duela gutxi arte bitarteko funtzionario izaerarekin pertsona bat egon da postu horretan, eta postu bera lortu du orain Mungiako Udalean, eta udalerrri txikiagoa izanik gehiago kobratzen du, edo orain Ordiziako postu honetara sartu denak eta Billabonatik datorrenak han baino soldata baxuagoa du.

Asenjo jn.


Asenjo jaunak Dubreuil jaunari gogorarazi dio langile publikoen 2010eko soldata jaitsiera Zapaterok bideratu zuela.

Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez badakiela Zapaterori egozten zaizkiola txarkeria guztiak baina soldata jaitsiera eta urte honetan soldata izoztea egoerak eragin duen neurri bat izan dela uste du, edo berak behintzat horrela ulertzen du eta egoera ekonomikoa hobetzen denean aldatetako egiteko mekanismoak egongo direla uste du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:




Aldeko botoak: 6 (EA 2, PSE-EE(PSOE) 2 , EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 5 (PNV 4, PP 1)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

8.- Herri Antzokia Erakunde Autonomoaren lanpostuen balorazioa.

Proposamena

2007ko apirilean, Ibarzabal& Line enpresak 'Herri Antzokia' Erakunde Autonomoko hiru lanpostuen eginkizunen balorazioa eta ordainsariaren balorazioa proposatu zituen, udalak lan hori aginduta.

Lanpostuen balorazioa onesteko geratu zen.


2011ko urtarrilean, eta udaleko lanpostuen balorazioa egiteko eratu zen batzorde paritariora baliatuz (alde sozialetik hiru ordezkari eta alde instituzionaletik hiru ordezkari osatuta), Herri Antzokiko lanpostuen eginkizunen deskribapen-proposamena eta ordainsariaren balorazio-proposamena egin ziren.

Alegazioak aurkezteko epea eman da.

Halaber, aipatu Batzordeak alde sozialaren eta udaleko bi ordezkariaren artean sinatutako dokumentu bat adostu du, balorazioa aplikatzeari eta lansarien beste baldintza batzuei buruzkoa.

2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako akordio-proiektua hartzea proposatu da:

- 1.- Landutako proposamenaren arabera, 'Herri Antzokia' Erakunde Autonomoko lanpostuen eginkizunen deskribapena onartzea.
- 2.- Lanpostu bakoitzaren ordainsaria jasotzen duten kalifikazio-aktak onartzea.
- 3.- Balioeste-batzordeak proposatutako dokumentua onartzea, bai balorazioa bai beste ordainsari-baldintzak aplikatzeko. Horrek esan nahi du:
 - a) Lanpostuen balorazioa 2008ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginezko izaerarekin aplikatzea.
 - b) 2012 eta 2013. urteetan, administrazioko langileek 2010ean ordainsarian izan duten galera berreskuratzea, aurrekontu erabilgarriaren arabera.



c) Halaber, 2012 eta 2013. urteetan, 2011. urteari dagokion KPIren % 2,8ko igoera aplikatzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Alkate jaunak adierazi du 2007 urtean Herri Antzokia Erakunde Autonomoaren lanpostuen balorazioa onartu zain geratu zela, eta zenbait arrazoi tarteko ezin izan dutela orain arte onartu. Balorazio proposamena onartu beharko litzateke eta ordainsari baldintzen eta aplikazioari dagozkien gainerako kontuen inguruan Batzordeak proposatutako akordioa. Atzeraeragintasuna 2008ko urtarrilak 1 datatik aurrera aplikatzea proposatzen da.

Maiza and.

Maiza andreak adierazi du, akordioa onartzeko gai ez direla izan esatea, pluralean, gezurra dela. Alkate jaunaren erresistentzia erabatekoa izan dela eta gauzak oztopatu nahi izan dituela uste du.

Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak Alkate jaunari esan dio akordioa onartzeko garaia dela. Akordioa atzeraeraginezko izaerarekin onartzea bidezkoa dela uste du eta Alkateak izandako jarrera aldaketaz poztzen da, nahiz eta akatsetatik ikasi behar dela uste duen.

Manrique jna.

Manrique jaunak esan du kasu honetan proposamena desberdina dela, langile gutxi batzuei eragiten dielako eta balorazioa 2007 urtetik onartu gabe dagoelako.

Bozketara jarri den proposamena hau da:


Proposamena

2007ko apirilean, Ibarzabal& Line enpresak 'Herri Antzokia' Erakunde Autonomoko hiru lanpostuen eginkizunen balorazioa eta ordainsariaren balorazioa proposatu zituen, udalak lan hori aginduta.

Lanpostuen balorazioa onesteko geratu zen.

2011ko urtarrilean, eta udaleko lanpostuen balorazioa egiteko eratu zen batzorde paritarioa baliatuz (alde sozialetik hiru ordezkari eta alde instituzionaletik hiru ordezkari osatuta), Herri Antzokiko lanpostuen eginkizunen deskribapen-proposamena eta ordainsariaren balorazio-proposamena egin ziren.

Alegazioak aurkezteko epea eman da.



Halaber, aipatu Batzordeak alde sozialaren eta udaleko bi ordezkariaren artean sinatutako dokumentu bat adostu du, balorazioa aplikatzeari eta lansarien beste baldintza batzuei buruzkoa.

2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako akordio-proiektua hartzea proposatu da:

- 1.- Landutako proposamenaren arabera, 'Herri Antzokia' Erakunde Autonomoko lanpostuen eginkizunen deskribapena onartzea.**
- 2.- Lanpostu bakoitzaren ordainsaria jasotzen duten kalifikazio-aktak onartzea.**
- 3.- Balorazio -batzordeak proposatutako akordioa onartzea, bai balorazioa bai akordio honi eransten zaizkion beste ordainsari-baldintzak aplikatzeko. Balorazioa 2008ko urtarrilak 1eko atzeraeraginezko izaerarekin aplikatuko da.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PSE-EE (PSOE) 2, IU-EB/ARALAR 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (PNV 4, PP1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

9.-Kontratazio Zentralerako Foru Aldundiaren Esparru Akordiora atxikitzea.

Proposamena

2011ko urtarrilaren 31n Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren osaketa eta funtzionamendua sortzen eta arautzen duen Dekretua onartu zuen, Zentrala, iragartzen diren kontratazio espedienteekin bat egiten duten kontratazio organoei laguntzeko sortu da.

Hitzarmenaren xedea da, alde batetik, aipatu kontratuetan baldintza ekonomiko hobekak lortzea, eta horrela kontratazio zentralizatuko sistema sortuberriari atxikitzen zaizkion entitateen gastu publikoa txikitzea; eta, beste aldetik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa sinplifikatzea, aldi berean kontratazio gaietan gardentasuna eta segurtasuna indartuz.



Hori dela eta, beharrezkoa da Ordiziako Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko Hitzarmena sinatzea, hitzarmen honen bitartez, Ordiziako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzen zaio; beraz, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez kontratatu ahal izango ditu zehazten diren ondasun, zerbitzu eta hornidurak, horrelakoak kontratatuzeko garaian Foru Aldundiak enpresa esleipendunekin egiten dituen esparru akordioetan ezarritako baldintzetan eta prezioetan.

2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- Ordiziako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea onartzea, Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatu ahal izateko.
- Alkate jaunari hitzarmen honetatik erator daitezkeen agiriak sinatzeko eskumena ematea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari andreak

Idazkari andreak jakinarazi du akordioaren azalpen testua zabaldu egin behar dela, Kontratazio Zentralera atxikitzeko akordioaz gain, energia hornidurarako lizitazioarako lanak hasi direnez, beharrezkoa dela lizitazio horren aipamena egitea akordio horretan.

Akordioari bigarren puntua erantsi behar zaio, honela idatzia dagoena: Lizitazioan eta Kontratazio Zentralak ondoren adostuko duen energia elektrikoko hornidura kontratuan parte hartzea.


2. puntua 3. puntu bezala geratuko da.

Alkate jn.

Alkate jaunak adierazi du esparru akordiora atxikita hornidurarako prezio eta baldintza hobeak lortuko direla, ondasun eta zerbitzu kontratazioak hobetuko direla eta administrazio tramiteak bideratzeko eta lizitazioak prestatzeko baliabideak hobetuko direla.

Gonzalez jn.

Gonzalez jaunak adierazi du ideia berez ona dela baina funtsezkoa dela Erosketa Zentrala garbi jokatzea bestela arriskutsua izan daitekeelako. Horrekin batera herriko hornitzaileak ere kontuan izan behar dira.



Dubreuil in.

Dubreuil jaunak galdetu du zein izango den lizitazio desberdinetara atxikitzeko era.

Idazkari andreak

Idazkari andreak jakinarazi dio era orokorrean atxikiko zaiola Erosketa Zentralari, osoko bilkura honetan formalki atxikiko zaiola, baina etorkizunean, ondasun eta zerbitzuen arabera, Toki Araubidearen Legeak zehazten dituen eskumen banaketa errespetatuz. Hau da, osoko bilkurak edo Alkatetzak kasuen arabera.

Bozkatutako proposamena honela idatzita geratzen da:

Proposamena

2011ko urtarrilaren 31n Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren osaketa eta funtzionamendua sortzen eta arautzen duen Dekretua onartu zuen, Zentrala, iragartzen diren kontratazio espedienteekin bat egiten duten kontratazio organoei laguntzeko sortu da.

Hitzarmena

Hori dela eta, beharrezkoa da Ordiziako Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko Hitzarmena sinatzea, hitzarmen honen bitartez, Ordiziako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzen zaio; beraz, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez kontratatu ahal izango ditu zehazten diren ondasun, zerbitzu eta hornidurak, horrelakoak kontratatzekeo garaian Foru Aldundiak enpresa esleipendunekin egiten dituen esparru akordioetan ezarritako

2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:


AKORDIORAKO PROIEKTUA

- **Ordiziako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea onartzea, Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatu ahal izateko.**
- **Lizitazioan eta Kontratazio Zentralak ondoren adostuko duen energia elektrikoko hornidura kontratuan parte hartzea.**
- **Alkate jaunari hitzarmen honetatik erator daitezkeen agiriak sinatzeko eskumena ematea.**

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR2)
Kontrako botoak: 0



Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

10.-Herritarren Partaidetzarako Esparru Akordioa.

Proposamena

Ordiziako Herritarren Partaidetzari buruzko Akordioa egin dela jakinarazten da, horren bitartez gure udalerrian dauden partaidetzarako mekanismoak eta prozesuak antolatzeko, arautzeko eta babesteko marko bat zehazten da.

Akordio marko honen helburuak ondorengoak dira, besteak beste:

- Ordiziako udalerriko arlo publikoetan, emakumeen eta gizonen partaidetza sustatzea eta bultzatzea
- Demokrazia parte-hartzailearen bitartez herritarren eskubide demokratikoak garatzea.
- Kultura parte-hartzaile baten egituraketan aurrera egitea.
- Gizarte lankidetzaren bitartez kudeaketa politiko eta administratiboan eraginkortasuna handitzea.
- Elkarteen arteko sarea sustatzea.
- Partaidetza bideak eta mekanismoak sortzea.
- Prozesu parte-hartzaileetan jarraitu beharreko protokolo eta prozedurak argitzea.
- Herritarren partaidetzari bidea bermatzea.

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

Ordizian Herritarren Partaidetzari buruzko Esparru Akordioa onartzea.


Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Alkate jaunak azaldu du legegaldi honetan sortu den sail bat dela. Hasieratik garbi izan genuen gaia zaila izanagatik eta denek ikasteko beharra izango genuela jakinda, urratsak eman behar genituela aurrera egiteko.



Horretarako Batzorde bat sortu da, gaia lantzeko, eta Esparru Akordiorako agiri bat sortu du, eta Batzorde honetan jende gehiagok parte hartzea nahi bazuen ere, lana ondo egin dela uste du eta hori eskertzeko modukoa da.

Herritarren partaidetza arautzeko oinarriak eta esparrua arautzen ditu.

Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak esan du legealdiaren hasieran finkatutako helburua bete duela eta Batzordean parte hartu duten pertsonen eskerrak eman nahi die, egindako lanagatik eta ahaleginagatik. Berak ere partaidetza handiagoa espero zuela adierazi du baina gustura dago egindako lanagatik.

Parte hartzeko pertsonak lortzeko baliabide asko jarri dira martxan baina hori da atera dena.

Oinarrizko dokumentu bat da, esparru akordio bat, partaidetzaren esperientzia garatzeko balio izango duena eta hobetuko dena.

Maiza and.

Maiza andreak proposamena onartu egingo du. Batzuetan saiatu arren nahi adinako partaidetzarik ez da lortzen ordutegi arazoak...etab.daudelako.

Kritika txiki bat egin du jardunaldi hauetako programetan ez delako Ordiziako Hiri Hezitzailea proiektuaz hitz egiten eta uste du partaidetza prozesuan aipatzeko moduko proiektu garrantzitsua dela.

Dubreuil jn.


Dubreuil jaunak erantzun dio esanez ez dela partaidetza prozesu orokor bat, baizik eta esperientzia jakin batzuk gainditzeko partaidetza prozesu bat izan dela.

Leunda jn.

Leunda jaunak uste du proposatutako dokumentua ez dela oso koherentea Udalak berak ez duelako partaidetza praktikatu, batez ere Udal ordezkari politikoei. Beraiei ez diete eskatu gai garrantzitsu askotan parte hartzeko. Beste alde batetik, ez du uste legealdi bukaeran horrelako agiri bat onartzeko unerik onena denik eta hauteskundeetan ez erabiltzea espero du.

Hala ere akordioaren alde bozkatuko du Batzordean parte hartu duten pertsonen lana eskertu eta aitortu behar delako.

Adierazi du lau urte hauetan partaidetzaren ordezkagarri den demokraziarik ez dela egon, baina proposa



Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez pozten dela bozkaren inguruko iritzia aldatzeaz eta hauteskudeekin zerikusirik ez izatea espero du.

Bere ustez udalerrriak herritarren partaidetzan urrats garrantzitsuak eman ditu. Hiru Aholku batzorde sortu dira: Kultura, Gizarte Ongizatea eta Kirolak.

Ereduzko beste proiektu batzuk ere martxan jarri dira. Orokorrean lan ona egin dela uste du, orain arte esparru markorik gabe, baina hemendik aurrera esparru akordioarekin.

Leunda jn.

Leunda jaunak adierazi du esandakoa bete behar dela eta oposizioak esaten duena entzutea errespetuzkoa dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

11.-Udalaren jabetza publikoko lursail zatia okupatzeko baimena ematea Iberdrola SAUri.

Proposamena

Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak "22 San Joan" HEEn udal-jabetza publikoko lurzerrenda bat eskusiboki okupatzea baimentzeko aurkeztu duen eskaera aztertuta.

"22 – San Joan" HEEn birpartzelazio-proiektua aztertuta, zeinak Iberdrola SAri titularitate pribatuko horniketa energetikorako h.10.1 lursaila esleitu baitzion, eta "22 - San Joan" HEEn Plan Partzialak xedatutakoa betez lursail horretara Ordiziako banaketarako egungo transformadore-azpiestazioa eramatera behartuz.



Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk aipatutako arrazoi teknikoak direla-eta, sarbiderako, ibilgailuak ibiltzeko eta beste hainbat jardueratarako azalera handiagoa (eskaerarekin batera dagoen dokumentazio grafikoan mugatua) gaitu behar dela aztertuta.

2011ko apirilaren 19ko data duen udal-txosten teknikoa aztertuta; horren arabera, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk ezartzen duen azalera Ordiziako Udalaren titularitatekoa den jabetza publikoko lurzorua (Plan Partzialetik eta "22 - San Joan" HEEren Birpartzelazio Proiektutik datorren hirigintza-kudeaketaren ondoren lortua) hartzen du, eta hori okupatzeak ez ditu berdegunetarako eta eremu libreterako diren lurzoru-estandarrak; izan ere, aipatu Plan Partzialesan horiek legeak eskatzen dituenetik gaindi daude.

Kontuan hartuta Udalak "22 - San Joan" HEEko Plan Partziala aldatu eta, ondorioz, Birpartzelazio Proiektua zuzendu asmo duela (Iberdrola SAri esleitu zaion lursaila behin betiko kokapenarekin bat etor dadin), Banaketarako Transformadore Azpiestazioaren instalazioa eta zerbitzuan jartzea administrazio-izapideak egiteko beharrezkoak izango diren epeak baino lehen egin beharko dira.

Sektore Elektriakoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 52, 54 eta horiekin bat datozen artikulua aztertuta, zeinetan sorkuntza-, garraio- eta banaketa-instalazio elektriko onura publikoa aitortzen baita, instalazio elektrikoa, horren obrak eta zerbitzuak eta zortasun publikoa Estatuaren nahiz Autonomia Erkidegoen jabetza, erabilera edo zerbitzu publikoko lurren nahiz ondare-lurren edo erabilera publikoko lurren, norberaren lurren nahiz probintziaren edo udalerraren lurren gainean ezartzea edo pasatzea baimentze aldera.


2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatu da.

AKORDIORAKO PROIEKTUA

1.- Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri edo horren ondorengo enpresari baimena ematea eranskinean jasotako planoan adierazitako udal-jabetza publikoko lursail-zerrenda eskusiboki okupa dezan.

2.- Akordio honek baimentzen duen okupazioa behin-behinekoa da, harik eta "22 - San Joan" HEE eta horren Birpartzelazio Proiektua aldatu arte. Aldaketa horrek zehaztuko du zein izango diren behin betikoz Iberdrola SAri titularitate pribatuko energi hornidurarako eta bestelako eremu osagarriko lursail gisa esleitutako eremuak; horiek, sarbide-eremurako, ibilgailuak ibiltzeko eta beste hainbat jardueretarako erabilgarriak izango dira, eta Udalak dagokien baimen iraunkorra definituko du. Edonola ere, udalaren hirigintza-determinazioagatik edo lurraldearen nahiz sektorearen antolamenduagatik jarduera elektrikoa bertan behera utzi edo beste kokapen batera eraman beharko balitz, lursaila okupatzeko behin-behineko baimen hau bukatzeak ez du inolako kalte-ordain eskubiderik sortzen, hori guztia lekualdatze horregatik Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri egoki dakizkiokeen bestelako eskubideak eta kalte-ordainak ukatu gabe.

3.- Baimenak barne hartzen duen lursailean kokatuko diren eraikinak eta instalazioak Iberdrola Distribución Eléctrica SAUrenak izango dira.



4.- Aipatu eraikinen eta instalazioen zein baimen honek barne hartzen duen gainerako azaleraren mantentze-lana (egoki erabiltzeko moduan, eta segurtasunari, zaintzari, garbitasunari eta apaindurari dagokienez) Iberdrola Distribución Eléctrica SAU ez beste inori dagokio, baita perimetroa hesiz ixten ez badu ere.

5.- Jarduera elektrikoari egotz badakioke, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUren kontura izango da okupatutako lursaila deskontaminatzea, halakorik egin beharko balitz.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Alkate jaunak azaldu du transformadore estazioa ipintzeko jabari publikoa erabiltzeko baimena behin-behinekoa dela, eta ideia lursailaren behin betiko lagapena egitea dela, Plan Partziala aldatzean.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

12.-San Joan HIE 22ko 30.5 lursailaren hasierako xehetasun azterketa behin betiko onartzea.

Proposamena

Arau Subsidiarioetako "San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuko a.30.5 lursailaren Xehetasun Azterketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Construcciones Aburuzak eskatuta eta CB2 Arquitectura S.L.P.k idatzia.

2011ko otsailaren 10eko 145 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki



bidez, 2011ko otsailaren 18ko 33 zenbakiko GAOn, eta 2011ko otsailaren 22ko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2011ko martxoaren 19ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2010eko azaroaren 26an Arkitektoen Eskola Ofizialak ikusonetsitako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako “San Joan” 22 HIEko a.30.5. lursaileko Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita Xehetasun Azterketako lurralde eremuko sustatzaile-jabe bakarrari ere.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Alkate jaunak adierazi du Xehetasun Azterketak lursaila hiru arlotan aldatzen duela.

- Eraikin-profila, bertako garaiera jaitsita.
- Sakonera zabaltzea
- Garajeetara sartzea

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gonzalez jaunak ez du bozkatuko interes gatazkarik egon daitekeelako espedienteko interesdunetako bat bere bezero delako.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.





Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

13.-EIOZen hobaria LORTEK INNOVACIONi.

Proposamena

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren berri eman da, bere 8-1 artikuluan "interes bereziko edo udal erabilerakoak" diren obra, instalazio edo eraikuntzetan kuotaren %95 arteko hobaria finkatzen du, horrela izendatzeko arrazoiak baldin badaude, enplegu sustapenak, egoera sozialak, kultur egoerak edo egoera historiko artistikoak arrazoitzen badu.

LORTEK Loturen Ikerketa eta Teknologia Zentroaren Elkartearen izenean Iñaki Otaño Gonzalezek egindako eskaeraren berri eman da, "Oiangualdea" 30 HIEren b.20.1. lursailean eraikin berria eraikitzeko EIOZen %50eko hobaria aplikatzeko.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua arabera, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hobaria aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

2011ko apirilaren 19ko Plenorako Gaiaren Batzordeak aldeko irizpena eman zion eskatutako hobariari, honako baldintzak ematen direla-eta:

Ekonomia jarduerarako etorkizunean garrantzitsua izango den sektorea aktibatzea eta lanpostu berriak sortzea.

Hori ikusita, honakoa proposatzen da:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

Loturen Ikerketa eta Teknologian LORTEKek burutuko dituen obrak interes bereziko edo udal erabilerakoak izendatzea.

Aipatutako obretan Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Zergan %50eko hobaria aplikatzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila


Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR 2)



Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak jakinarazi du, osoko bilkurak horrela erabakitzen badu, eguneko gai-zerrendan beste hiru puntu sartu nahiko litezkeela, hauteskundeak pasa arte eta Udalbatza berria osatu arte ez delako osoko bilkurarik egingo eta gai hauek onartzea komeni dela gehiegi atzeratu daitezkeelako kontuak.

Sartzeko puntuak honakoak dira:

- d) Udalak eta Goierriko Ekimena SAK sinatu beharreko Hitzarmena onartzea, azalera eskubidea uzteko Oiangualde HIE 30eko b.20.1. lursailaren P2 azpilursaila erosteko aukerarekin.
- e) 2010 ekitaldiko GOIEKI S.A.ren kontuen auditoria txostena onartzea.
- f) Kreditu aldaketak onartzea.

Aipatutako hiru puntuak gai-zerrendan sartzeko bozketa egin da:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Honela, aurkeztutako gaiak presazko izaerarekin aztertzea onartu da.

Segidan hurrengo puntuaren berri eman du Batzordeburuak.


14.-Hitzarmena onartzea, azalera eskubidea uzteko Oiangualde HIE 30eko b.20.1. lursailaren P2 azpilursaila erosteko aukerarekin.

Proposamena

'30 - Oiangualde' Hirigintzako Interbentzio Eremuko b.20.1 lursailaren xehetasuneko azterketa behin betiko onartu dela jakinarazi da 2010eko urriaren 29ko osoko bilkuran.

Ordiziako notario Ignacio Pagola Villar jaunaren aurrean eskritura publikoan jaso zen higiezinaren multzoa. Aipatu b.20.1 lursaila P1, P2 eta P3 azpilursailetan banatu zen, eta horietatik P2 azpilursailaren titularra udala da.

Udala interesatuta egonik eremua aurreikusitako erabileren arabera bultzatzen, egoki irizten dio udalaren titularitatekoa den P2 azpilursailaren azalera-eskubidea lagatzeari, irabazi asmorik gabeko



edozein entitatek edo elkartek enpresa, turismo, negozio eta antzeko arloetan ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak sustatuko eta promozionatuko dituen zentro bat jartzeko.

Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 117.a) artikulua araberak, ondasunak era zuzenean besterendu daitezke, lehiaketarik egin gabe, araudiak kasu bakoitzerako ezartzen dituen xehetasunekin, besterentzea Administrazio Publikoekin egiten badira, beraien artean edo beraien erakundeen artean.

AKORDIORAKO PROIEKTUA

1.- 'Oiangualde' 30 HIEko b.20.1 lursailaren P2 azpilursailaren azalera-eskubidea (erosteko aukerarekin) besterentzeko baldintza ekonomiko administratiboen agiria onartzea, enpresa, turismo, negozio eta antzeko arloetan ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak sustatuko eta promozionatuko dituen zentroa eraikitzeke.

2.- Azalera-eskubidea lagatzen sortutako diru-sarrerak edo baliabideak lurzorua udal-ondararako erabiltzea.

3.- Alkate jaunari ematea beharrezkoak diren agiriak sinatzeko eskumena.

4.- Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Sailari jakinaraztea lagapen hau egin dela.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Alkate jn.

Alkate jaunak Iker Garparsoro jaunarekin GOIEKiko jereentearekin aurreko ostiralean izandako bileraren berri eman du, eta hitzarmenean sartu diren zenbait kontu azaldu ditu, eta horrekin batera, bilera horretan argitu eta zehaztu diren bestelako gai batzuk.

Idazkari andreak

Idazkari andreak hitzarmenean sartu diren aldaketa batzuen berri eman du eta jarraian azaldutakoak dira:

- Bi urtetan zehar kanonik gabe egotearen aipamena.
- EIOZen %95eko hobaria izateko borondatea.
- Langileak kontratatzeke orduan lehentasuna, ez mugatzea soilik Ordiziako udalerrira, baizik eta elkarteetan sartzen den eskualdera.
- Lursailaren salneurria: konpentsazioa
- Bigarren urtetik aurrera eta 5 urteko mugarekin erosteko aukera.
- Lagapenaren epea bukatzean edo erosketa aukera gauzatzean bermea amaitzea.



Kontu-hartzaile jaunak

Kontu-hartzaile jaunak hitz egiteko aukera eskatu du eta adierazi du ez duela dagokion txostena prestatzeko denborarik izan. Alde batetik, lursailaren salneurria egokia iruditzen zaio xede mota hauetan salneurria zehazteko orduan zailtasunak egoten direlako, baina beste aldetik, 6.000 euroko kanona euskarririk gabekoa dela uste du.

Irizpideak falta direnean, lursailaren balioari aplikatutako %4eko legezko interes-motaren arabera kalkulatu behar zela uste du, urteko 9.200 euro, nahiz eta honekin batera, berak onartzen duen entzun duenaren arabera eta ematen duenaren arabera lursaila erosiko dutenez kontuak ez duela garrantzia handiegirik.

EIOZen hobariari dagokionez, bere ustez, mota honetako hobariak besterik gabe edozein modutan emateak ez du Udalaren egoera ekonomikoa hobetzen laguntzen.

Gonzalez jn.

Carlos Gonzalez jaunak uste du prezio politiko bat dela.

Sinatzeko akordioari dagokionez, bertako 14. klausulan, "erosteko aukera" puntuko 2. atala, honela idatzita geratuko litzateke:

Sanlneurria 230.000 eurokoa izango da, KPIa gaurkotuta edo transmisioaren unean pilatutako indizearekin gaurkotuta, kanon kontzeptuan ordaindutako kopurua deskontatuz transmisioa egin arte. Kopuru honi Ordiziako Udalak GOIEKI SA duen partaidetzaren %23,11ri deskontatu behar zaio, soilik GOIEKI SA osatzen duten udalerrien ez-ohiko ekarpen bidez egiten bada erosketaren finantziazioa.

Dubreuil eta Irurtioz jaun-andreak

Dubreuil eta Irurtioz jaun-andreak uste dute LORTEK eta GOIEKIren besterentzeko baldintzek bestelakoak izan behar dutela, azkenekoarena batez ere, kapitala osoa publikoa duen erakunde publikoa delako.

Zehaztutako aldaketak egin dituzte.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 1, IU-EB/ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

15.- 2010 ekitaldiko GOIEKI S.A.ren kontuen auditoria txostena onartzea.

Proposamena

GOIEKI SAK aurkeztutako kontu-ikuskaritzako txostenaren berri eman da, 2010ari dagokiona, 2011ko ekainaren 4an egingo den Batzorde Orokorrean aztertu eta onartzeko.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko erabakiarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

GOIEKI SARI dagokion galera eta irabazien balantze eta memoria onartu

Alkate-Batzordeburuari Udal honen ordezkartzan aldeko botoa emateko ahalmena eman.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Alkate jaunak azaldu du elkartearen ikuskaritza txostena onartu behar dela eta elkartearen hurrengo Batzorde Orokorrean onartuko direla kontuak.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU-EB/ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (EA 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.





Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

16.- Kreditu aldaketen espedientea onartzea.

Proposamena

Aurrekontu zuzkidura handitzea eskatzen duten bi gastu daude.

1. P-21ean igogailua ipintzea. 601.511.00.03.2010 partidak 51.470 euroko kreditu bat du eta 85.289,22 euro behar dira. Alkate jaunak esan du San Bartolomeko aparkalekuen soberakina erabiltzeko horretarako.
2. Espaloietan ez irristatzeko tratamenduak. 601.511.00.05 partidan 12.000 euro zeuden eta 35.000 gastatu dira. Obra txikietako 601.511.00.02 partidan soberakinak daude.

ERABAKIA: Ondorengo kreditu transferentzia onartzea:

KREDITU-IGOERA

Partida	Izena	Zenbatekoa
601.511.00.03.2010	Irisgarritasunaren sustapena	34.000,00
601.511.00.05.2011	Zoladuretan ez irristatzekoak	23.000,00
Guztira	57.000,00	

KREDITU-GUTXITZEA

Partida	Izena	Zenbatekoa
601.222.12.01.2010	San Bartolome aparkalekua	34.000,00
601.511.00.02.2011	Obra txikiak	23.000,00
Guztira		57.000,00

Proposamena onartzeko gehiengoa: soila


Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Kontu-hartzaile jaunak azaldu du beharrezkoa dela kreditu aldaketa egitea P-21eko igogailuaren obrarako fondoak jartzeko, eta baita espaloietan ez irristatzeko tratamendua emateko gastuentzako ere.

Igogailuko obrak San Bartolome aparkalekuko obren partidatik bideratuko dira eta ez irristatzeko tratamendua obra txikien partidatik.



Maiza and.

Maiza andreak igogailuko obrak noiz egingo diren galdetu du, lokaletako zenbait jarduera benetan kaltetu daitezkeelako (adibidez akademietako jarduera...).

Alkate jn.

Alkate jaunak erantzun dio esanez ez duela uste obra handia egin behar denik baina hala eta guzti zere bizilagunekin egongo da obrak hasi baino lehen.

Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak uste du beharrezkoa dela urratsak ematen hastea. Aldapa asko dituen herria da, 65 urte baino gehiago duten eta mendekotasuna duten 2.000 biztanle baino gehiago daude.

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE/EE-PSOE 2, EB-ARALAR 1, EA 1).

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE/EE-PSOE 2, EB-ARALAR 1, EA 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

17.-Galde-eskeak.

Ez da izan.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.